

**Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala****111. zenbakia****Data 2013-06-12****107 orria****7 Udal Administrazioa****BEIZAMAKO UDALA****Eraikinen inspezio araua.**

BEIZAMAKO UDALA

Iragarkia

Beizamako udalbatza plenoak, 2013ko martxoaren 26an egindako ezohiko bilkuran, beste batzuen artean, honako erabaki hau hartu zuela, korporazioa osatzen duten kideen gehiengo absolutuarekin:

**ERAIKINEN INSPEKZIO ARAUA**

*Lehen:* Ondorengo inspezio egutegia onartzea.

Eraikinen ikuskapen teknikoaren gauzapena ordenatua izan dadin, haien antzintasuna kontuan hartuta, 13. artikuluan esandakoaren barruan, eta, hala egokituz gero, udal-plangintza baztertu gabe bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, EIT azterketak programazio honi jarraituz egingo dira:

- a) Dekretu hau indarrean jartzen den egunetik 2023ko abenduaren 31 arte, 1901. urtea baino lehen egindako eraikinak.
- b) 2024. urteko abenduaren 31 arte, 1901. eta 1940. urteen artean egindako eraikinak.
- c) 2025eko abenduaren 31 arte, 1965. urtea baino lehen egindako eraikinak eta katalogatutako gainerako guztiak.
- d) 2025eko abenduaren 31tik aurrera, urtero egin beharko da aurreko ataletan ez dauden eraikinen lehen ikuskapen teknikoa, betiere haien antzintasuna 50 urtetik gorakoa bada, eta bigarrena nahiz ondorengo ikuskapenak lehenengoa edo hurrengoak egin eta hamar urte igaro baino lehen.

*Bigarrena:* Euskal Gobernuari honen berri ematea, jakinaraziz, subsidiarioki udalari egotzi daitezkeen inspezioak burutzeko kostuaren finantzazioa bidea euskal gobernutik jasotzen den bezain pronto Beizamako udala epe horiek murrizteko egoeran egongo dela.

**Beizama**, 2013ko ekainaren 4a.—Begoña Garmendia Vazquez, Alkatea. (5678)